

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **13/2020 Mozioa, otsailaren 12koa, Araban biztanle gutxien duten inguruetan ekintzaitasuna sendotu eta babesteari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 12an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

13/2020 Mozioa, otsailaren 12koa, Araban biztanle gutxien duten inguruetan ekintzaitasuna sendotu eta babesteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sendotu ditzala lurraldean ekintzaitasuna sustatzeko politikak, bereziki biztanle gutxien duten inguruetan, enpresa-proiektu berriak sortzeari begira.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala enpresa-proiektu berritzaileenak babesten, abertastasuna eta kalitateko enplegua sortzeko duten gaitasunagatik, eta lehenetsi ditzala balorazio-irizpideetan 1.000 biztanle baino gutxiago duten herrietan garatzen diren ekintzaitasun-proiektuak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**